

9/1/890

# Sagardotegiak

ANDONI KORTAJARENA

«Garai bateko oroitzapenak» gaiarekin jarraituz, sagardotegietako giroa aipatuko dugu bostgarren atal ontan, gure gaztaroko, lasto koloreko sagardo txinpartatsuak gogoratu.

Donosti uriko auzoetan eta inguruko errietan, Oiartzun'dik asi eta Asteasu eta Usurbil'eraño, sona aundiko sagardotegi asko zeuden, urte erdian gutxienez sagardoa txotxean saltzen zuten lekuak.

Naiz eta oraingo erreztasunik ez izan jendeari jakin erazteko, sagardozaleak azkar jakiten zuten noiz eta non astekoa zan sagardo salke-ta, eta, zein kupelategikoa zan onena bata-besteari adieraziz, bertara urbilduko ziran eta an barrena ibiliko ziran kupelako azken kondarrak edan arteraiño.

Amaika bertso saio kantatzen zizuten, Txirrita eta bere kidekoek (garai aietan sagardotegiak bai'ziran bertsolarien eskolak) gau eta egun, aste osoa bertan igarotzen zutenean, geiago ezin zutenean belar tartean lo egiñez.

Kupelategi bazterretako sukaldetxoetan amaika kaxuelka goxo atontzen zituzten bertako etxeoandreek; legatza, katuarraia eta sapoa saltzan; bixigu, txitxarro, sardiña eta baita sardin-zaarrak ere parrillan erreta, bakaillo-tortilla eta abar, bakoitza bere sasoiean, piperrez ongi ornituak zintzurak egarrierazteko, sagardoa aixago edatearren. Ez zan ainbesterañoko oiturarik txuleta aundiak erreta jateko gaurko egunean bezala, agian sal-neurriaren arabera gertatzen zan ori. Orañaldian gauzak zearo aldatu dira eta sagardotegietako egoera oso ezberdiña da, eta sagardo aseka bat egitea ez da gutizi merkea.

Sagardotegi geienetan ez zan palta izaten bola-tokia eta toka-jokoa. Jolasketa bat izanik eta denbora-pasa jokatzuz, taldeka egiten ziran apustuak, ea sagardo erronda nork ordaindu.

Ondoren aipatzen duguna, sagardotegietako oitura bat zan. Edozein

irixten zanean kupelategira, bertan zeudenak, era ontan, edo antzera, agurtzen zituan. «Kaixo jaunak», edango al dugu?, eta bata bestearen atzetik errenkan inguratzen ziran kupelaren ondora, eta gonbidatu zituanak lenengo zegoanari eta gero batak-besteari emanaz, danak edaten zuten, eta edontziak ustutzerakoan, azkenengo txistilla, basoari eragiñez, edontziaren espaiña garbitu naiez bezala, lurrera botatzen zuten. Oitura ori zala-ta orduan ere ba'ziran besteren bizkar edatea gogozkoa zutenak. Goiz xamar joango ziran sagardotegira eta an zeuden bi edo iru legunei baso bana eskeiñi eta geroztik, arratsalde guztian berriketan ate ondoan egonik, irixten zan bakoitzaren kontura edan eta edan, asebete arteraiño.

Beste gauza aipagarria gai oni buruz, Ostegun Santu eta Ostiral Santu egunetako giroa izaten zan. Begirune aundiko egunak izaten ziran egun aiek, bereziki erri txikietan. Ez zan jaialdirik izaten, ez zan kartetan jokatzuz, edozein motatako jolasik ez zan egiten eta erritarrek arratsaldeko elizkizunetara urbiltzen ziran, sermoia entzutera eta prozezioan ibiltzera, naiz eta urteko beste jai egunetan elizara ez inguratu, eta, ondorenean sagardotegira, Astigarraga erriari Arozamena bertsolariak eskeiñitako bertso batean esaten dan bezala, Astigarraga'k pama izan du / sagardo onak izaten / mutil koskorra nintzan ni baña / goguan nola daukaten / aste santuan elizkizunak / gero sagardo edaten / esan nai nuke eztakianak / orain jakindu dezaten, eta ala esaten zuten, egun aietan ainbeste «atxur» ez zala urte guzian arrapatzen. Izan ere, edale onak, esaten zutenez, edaten jakin bear zan eta ondoren maskuria ustutzen. Ori kontuan izanik, gogor datorkit Donosti'ko auzo batean kokatua zegoan sagardotegi sonatu bat, eta etxe atzean, erreka inguruan, zegoan orma zaarrak zer bustialdi artzen zituan.